

Balio Proposamena

Gure adimen artifizialdun smartwatch-a pertsona neurodibergenteen bizitza hobetzeko diseinatuta dago, eguneroko ekintzetarako laguntza pertsonalizatua, eskuragarria eta diskretua eskainiz.

Beste gailu batzuek neurodibergentzia mota bakar batean zentratzen diren bitartean, gure produktuak autismoa, TDAH, dislexia, disgrafia, diskalkulia eta alexitimia lantzeko tresna espezializatuak integratzen ditu, erabiltzaile bakoitzera egokitzen den laguntza osoa eskainiz.

Zein arazo konpontzen dugu?

Milioika pertsona neurodibergentek egunero zailtasunak dituzte haien antolaketan, komunikazioan, ikaskuntzan eta emozioen kudeaketan... Oztopo hauek eragina dute haien autonomian, hezkuntzan, produktibitatean eta ongizate emozionalean. Eskaintzen diren aukera gehienak garestiak eta ez dira oso inklusiboak.

Zer eskaintzen dugu?

Adimen artifizialarekin egindako erloju adimendun bat, honako hauek egiteko gai dena:

- Eguneroko bizitza antolatzea (ohar-gogorarazleak, zeregin-zerrendak, pausoz pausoko jarraibideak, denbora-kudeatzeko notifikazioak).
- Irakurketa, idazketa eta ulermena erraztea testuak eskaneatuz, ozen irakurriz, laburpenak sortuz eta ariketa pertsonalizatuak emanez..
- Ikaskuntza matematikoa eta numerikoa laguntzea elementu bisualekin, azalpenak puntuka emanez eta akatsak antzemateko laguntzarekin.
- Erregulazio emozionala indarttu ahal izatea, arnasketa teknikekin, mindfulness-arekin eta emozioak identifikatzeko entrenamenduak erabiliz.
- Komunikazioa eta ulermen soziala hobetzea elementu bisualen, eta errutinen bidez.
- Ohitura osasungarriak sustatzea, motibatzen duen eta autonomia garatzen duen la baten bitartez.

Hori guztia **minimalista, diskretua eta material birziklatuekin egindako gailu batean**, edozein adineko pertsonentzat..

Zerk egiten gaitu desberdinak?

- Neurodibergentzia desberdinak tratatzen dituen gailu bakarra, gaur egun existitzen ez dena.
- Pertsonalizazio osoa, pertsona bakoitzaren behar espezifikoetara egokituz
- Teknologia eskuragarria, bisualkiia nabaritu gabea eta erabiltzeko erraza.
- Mugikorreko aplikazio argi eta sinplearekin integratuta, funtzionamendua urratsez urrats azaltzen duena.
- Ikuspegi inklusiboa: neurodibergenteak EZ diren pertsonentzat ere erabilgarria, antolaketa, arreta edo ongizate emozionala hobetu nahi dutenentzat.

Erabiltzailearen onura nagusiak

- Autonomia eta segurtasun handiagoa egunerokotasunean.
- Estresa, frustrazioa eta antsietatea murriztea.
- Eskola, lan eta bizitza pertsonalean errendimendu hobea.
- Ohitura iraunkorrak.
- IAri esker momentuhoto laguntza-sentimendua.

Eskuragarritasuna eta prezioa

Erlojua gure webgunearen bidez eskuratu ahal izango da, eta baita hezkuntza-zentroetan ere, ikasleei eta familiei errazago iristeko. Preasioa 129€ koa da

